



2025EKO UZTAILAREN 17KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko uztailaren hamazazpian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Jose txo Sese Eztala eta Maria Carolina Aguirre Mastrangelo zinegotziak ez dira etorri.

Idazkari lanetan Idazkari akzidentalak, Izaro Gurrutxaga Auzmendik, dihardu.

Aitana Amondarain Eskisabel Kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

II.- 2024ko KONTU OROKORRA.-

2024ko ekitaldiko Kontu Orokorra, Kontuotarako Batzorde Bereziak 2025eko maiatzaren 26an egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2025eko ekainaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 baliodun egunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, 2023ko ekitaldiko kontu orokorra onartu egin du.

Kontu Orokor honek udalaren 2024ko Kontu Orokorra eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anonimoaren 2024ko urteko kontuak hartzen ditu barne.

III. KONTU BATERATUAK.-



Kontu bateratuak lehen aldiz aurkezten den aldia dela azaltzen du Alkateak, eta Kontu-hartzaileak konfirmatu egiten du, legeak Osoko Bilkurari berri ematea eskatzen duela.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

IV.- 2024ko UDAL INBENTARIOAREN EGUNERAKETA.-

Alkateak udal inbentarioaren 2024ko mugimenduen berri ematen du: inbentarioaren guztirakoa 53.290.629,41 euro, urteko amortizazioak 16.359.227,86 euro eta beraz guztirako zenbateko garbia 36.943.514,04 euro.

Gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aho batez, 2024ko udal inbentarioaren eguneraketa onartzen du.

V.- 2024ko ORDAINSARI IGOERA OSAGARRIA.-

Ekainaren 27an 4/2024 Errege Lege-Dekretua argitaratu zen EAOn, besteak beste, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak onartzen dituen.

Zehazki, II. atalean, 6. artikuluan, Errege Lege-Dekretu horrek honako hau xedatzen du:

II. ATALA. Sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak (...).

"6. Artikulua. Sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-igoera gehigarria, 2024. urterako."

- 1.- 2024an, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariek ehuneko 2ko gehienera igoera orokorra izan ahal izango dute 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudene-kiko; azken horien barruan, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bos.2 artikuluan aurreikusitakotik eratorritako igoerak sartzen dira, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasunaren arabera, bai langileei dagokienez, bai haien antzinasunari dagokionez. Ordainsarien igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.
- 2.- Era berean, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, hala badagokio, ehuneko 0,5eko lansari-igoera gehigarri eta finkagarria aplikatuko zaie 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden lansariei, baldin eta 2022, 2023 eta 2024ko KPIaren aldaketaren baturak 2022, 2023 eta 2024ko lansari-igoera finko metatua gainditzen badu.

Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) 2024ko IPCAren datuak argitaratu ondoren, igoera hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez, zeina BOEn argitaratuko baita (...)"

EUDELe, 2024ko uztailaren 2an, zirkular bat atera zuen horren berri emanez. Bertan dio Estatistikako Insitutu Nazioanalak 2025eko urtarrilaren 15ean 2022, 2023 eta 2024 urteetako KPIHren aldakuntzen batura %12koa izan dela ziurtatu duela, eta



ondorioz 4/2024 Errege Lege-Dekretuaren 6.2. art. arabera sektore publikoko langileen ordainsariei % 0,5eko igoera osagarria onartzeko gomendioa egiten du 2024ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Hau honela izanik eta Ogasun Batzorde informatiboaren proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, Lazkaoko Udalaren langileen ordainsariei ehuneko 0,5eko gehikuntza-gehigarria aplikatzea erabaki du.

VI.- UDAL ERAKINEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Udaleko udal-eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeko espedientea prestatu dute Udal honetako zerbitzu teknikoek, zerbitzu hori berriz ere lizitatzeko.

Lizitazioaren urteko oinarrizko aurrekontua 404.203,55 €-koa da, gehi BEZari dagokion 84.882,74 € (%21), guztira 489.086,29 €-koa.

Zerbitzu hori gauzatzeko epea 2 urtekoa da, eta urtebeteko iraupeneko luzapen bat egin ahal izango da.

Alkateak bi urteko epearen zergaitia argitzen du, hain zuzen ere gizarte-ekimeneko enplegu-zentru berezientzat eta laneratze-enpresentzat gordetako kontratua egin nahi dela, eta kasu honetan legeak epealdi hau ezartzen duela.

Plegu teknikoen prestaketan udal-instalazioen eguneratze bat egin dela gehitzen du Alkateak, Kirol instalazio berrien gehikuntza nagusiki. Gainerakoan aldaketa gutxi daudela esaten du. Baldintza bereziak ere sartu direla dio, hizkuntza arloko exekuzio baldintza bereziak direla txertatu direnak.

Ondorioz, eta 2017ko SPKLren 116. eta 117. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, aho batez, honako hau erabaki da:

Lehena.- Lazkaoko Udalaren udal-eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratazio espedientea, eta kontratua arautuko duten administrazio-klausula berezien plegua eta baldintza teknikoen plegua onartzea.

Bigarrena.- Zerbitzua prozedura ireki arruntaren bidez esleitzeko lizitazio deialdia egitea.

Hirugarrena.- Kontratu honek dakarren gastua baimentzea, indarrean dagoen aurrekontuko 227.01 aurrekontu-aplikazioko programa aplikagarri desberdinen kontura.

Laugarrena.- Lizitazio publikoa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta kontrata-tzailearen profilean iragartzea.

VII. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.



VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak hamar gutxi direnean eta nik, Idazkari akzidentalak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



The image shows a handwritten signature in blue ink, followed by an official stamp. The stamp features a shield emblem with a cross and a sun, and the text "LAZKAO UDALAK" below it. There is another handwritten signature or mark over the stamp.